

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Alkatearen 260 Dekretua, 2024ko azaroaren 20koa. Donemiliagako Udaleko laguntza programako laguntzaile lanposturako behin-behineko izendapena, praktikaldian, langile lan kontratadun araubidean, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan

Aintzat hartu dira Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak.

Deialdiaren oinarriak argitaratu ziren 2022ko abenduaren 14ko ALHAOn (143. zk.) eta 2023ko urtarrilaren 2ko ALHAOn (1. zk.) (hutsen zuzenketa), bai eta deialdiaren laburpen bat ere 2023ko apirilaren 28ko BOEn (101. zk.).

Abenduaren 28ko 20/2024 Legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku utzi zen.

Alegazioak aurkezteko epean ez da alegaziorik aurkeztu behin-behineko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakiaren aurka.

Behin betiko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakia eta izendapen proposamena ikusita, honako hau izan da puntuaziorik handiena lortu duen izangaia: M^a Begoña Fernandez Beltran de Heredia.

Izangaia aurkeztutako dokumentazioa aztertu da.

Bat etorritik 14. eta 15. oinarrietan jasotakoarekin, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoaren babesean, hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. M^a Begoña Fernandez Beltrán de Heredia andrea (NAN: 16261187A) behin-behinean izendatzea Donemiliagako Udaleko laguntza programako laguntzailearen lanpostura atxikitzeko, langile lan kontratadun araubidean.

BIGARRENA. Lanpostua behin-behinean beteko du 3 hilabetez, probaldia edo praktikaldia egingo baitu, Donemiliagako Udalean, bat etorritik abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarrian ezarritakoarekin.

Izendapen horrek ebazpen honen egunetik aurrera izango ditu administrazio ondorioak.

HIRUGARRENA. Lanpostuaren atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte, bat etorritik deialdiaren 15. oinarriaren xedatutakoarekin.

LAUGARRENA. Aldi horrek irauten duen bitartean, praktiketako langile lan kontratadun izendatutako pertsonak normaltasunez beteko ditu bere egitekoak, eta dagozkion ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du.

Probaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, langile lan kontratadun finko izendatuko da, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozein tokitan argitaratuko da.

BOSGARRENA. Langile lan kontratudun izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzmatea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko, korporazioko idazkariaren aurrean. Zin egite edo hitzmatek egiten ez badute edo lanpostuaz jabetzen ez badira, eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

SEIGARRENA. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta web orrian, udalaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Erdoña, 2024ko azaroaren 20a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO